



Cie So.K

Topa.K Dialogue

Topa.K-Dialogue - Ikuskizuna

Zer pasatzen da unibertso ezberdinetik etortzen diren bi izaki elkartzen direlarik ? Ez dute, ez hizkera bera, ez kode bera. Lehenik, beren artean sortzen den ez ulertze batek trabatzen ditu. Emeki-emeki, antzeko ezaugarriak agertuko dira. Horiei esker, biak hurbildu eta elkar ezagutuko dute. Horrela, benetako harreman bat sortuko da, konplizitatean eta bestearen arretan oinarritua.

Ikusgarria euskal dantza eta dantza klasikoa erakustez dibertitzen da eta ez malezia gutxirekin, tarteka, elkarren topaketekin jolasten baita. Koreografiak, hiru dantzari euskaldun eta hiru dantzari klasikorentzat idatziak izan dira. Publikotik ahal bezain hurbil interpretatuak dira, publikoa lehen lekuko izateko moduan. Dantzariak, bost musikariz lagunduak dira, hala nola, biolin, biolontxelo, zeharkako flauta, akordeoi eta perkusio jotzaileak izanik.

Teaser <https://vimeo.com/291243779>



So.K konpania

So.K

2017 an, « Halsa » ikusgarria idatzi duten hiru koregrafoek, So.K konpania sortzen dute. Euskal dantza et garaikidearen arteko estetika berri bat sortzen da, antzerkiaren jokotik hurbiltzen dena, interpretazioari leku garrantzitsu bat emanez.

« *Topa.K <Dialogue>* » bigarren sorkuntza honekin, So.K konpaniak bide koregrafiko berri hau hurbiltetik esperimentatzen du.



Julien Corbineau – Koreografoa



Tipidanik euskal dantzan ari izan da, musika tresna ezbernikak ikasiz. Berantago bere formakuntza osatzen du dantza klasikoan, dantza garaikidean, antzerkian eta txotxongiloen erabileran. 2005etik goiti, artista batzuekin euskal dantzari buruzko egungo ikusmoldea eskaintzen duten ikusgarrien sortzeetan parte hartzen du. KSI taldearentzat, *Izaki* (2006), *Gauzak Biltzen* (2009) eta *Neo Kotilun* (2013) ikuskizunak sortzen ditu eta 2016an Dantza Sarean ari diren dantzariarentzat *Hatsa* sortu du.

Fisika eta kimika erakasle agregazioduna izanik, euskal dantzarien formakuntzari interesatzen da, euskal dantzan oinarritu formakuntzari, dantza klasikoan, dantza garaikidean eta antzerkian bermatzen denari. 2014an IDBko pedagogia taldearen arduradun bilakatzen da eta orduz geroztik Maurice Ravel Kontserbatorioarekin elkarlanean ari izan da. 2016an IDB euskal dantza federazioko lehendakaria bilakatzen da eta 2017an Nathalie Verspecht eta Laetitia Cheverry-rekin *So.K* konpania sortzen du.

Nathalie Verspecht - Koreografoa



Anverseko "Ecole Royale de danse" eskolako diploma badu eta dantza klasiko irakasle tituluduna da. 1994an Lausanneko lehiaketaren sari ohargarria eramaten du.

Fama handiko konpainia batzuetan dantzari bilakatzen da, horietarikan Flandriako Errege Baleta. 1998an Miarrizeko Malandain Baletan sartzen da. 2013 arte munduan gairikoa bira anitz talde honekin egiten du. Orduan *Maurice Ravel* Kontserbatorioan baita ere sektore pribatuan dantza klasikoa irakasten du.

2015az geroztik Basusarriko "Studio de Danse Côté Cour" estudioan dantzako klaseak ematen ditu

Jean-Victor Suzanne – Musika egilea



Maurice Ravel Kontserbatorioan bederatzik urtezko perkusio ikasketak egin ondoren, klarinete klasean izena ematen du eta ikasketak ibilbidea goiko zikloraino segitzen du. 2014an "UV Régionale de Formation Musicale" diploma lortzen du. Ikastaro anitzek esker bere heziketa osatzen du musika mota ezberdinak praktikatzuz hala nola musika klasikoa, jazz musika, musika garaikidea, klezmera, Balkanikoa. 2016an *Hatsa* ikuskizunaren musikak sortzen ditu.





© Stéphane Bellocq

Dantzariak

Siloé Augeraud, Andréa Boche, Clara Bessard, Josu Corbineau, Naia Corbineau, Aintzane Haira, Aurélien Labenne, Jon Vernier.

Musikariak

Paul Nieto - Akordeoia
Delphine Labandibar – Bibiolina
Manon Seyrac – Flauta
Noa Seyrac – Biolontxelo

Produkzioa

Zuzendaritza : Julien Corbineau

Koregrafiak : Nathalie Verspecht, Julien Corbineau

Musika : Jean-Victor Suzanne

Jantziak : Anne-Marie Subias, Nathalie Verspecht, Maider Corbineau

Argazkiak : Stéphane Belloc, Gabrielle Duplantier

Kontaktua

www.sok.eus

✉ contact@sok.eus

06 10 19 46 09



Cie So.K

Topa.K Dialogue
